

NOLA SUSTATU HAURREN PARTE-HARTZEA IKUSPEGI FEMINISTATIK



HERRI
HEZITZAILEA

2

- Herri Hezitzailea lantaldea:

Irrien Lagunak Kluba, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Sorguneak ikertegia (Huhezi, MU), Ikastolen elkarteko aisialdiko taldea, Tabakalera, Amarauna Sarea, Pil-pilean euskara elkarte, Kukumixo, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte, Urtxintxa Bizkaia Eskola eta Ttakun Kultur Elkarte.

- Koaderno honen egilea:

Bizkaiko Urtxintxa Eskola

- Maketazioa eta ilustrazioak:

Eñaut Aiartzaguena Bravo

-Argazkiak:

Bizkaiko Urtxintxa Eskola

- Inprenta:

Gertu inprimategia

- Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia

- Bildumaren ISBN:

978-84-606-672-6

- Ale honen ISBN:

978-84-606-7248-7



Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu.

Horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

- Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura aitortzea**;
- Hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena** ematea;
- Eurek eraikitako **aisia hezitzaile** eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide izanez** eta **ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana** indartzea
- Pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

AURKIBIDEA

- SARRERA	6
- KOKAPENA	7
- PATRIARKATUAREN ZIRRIKITU ETA HAUSTURETATIK HEZTEN	10
- PARTE-HARTZEA IKUSPEGI FEMINISTATIK	13
- HELBURUAK	15
-HAURREN PARTE-HARTZEA IKUSPEGI FEMINISTATIK	17
- NOLA SUSTATU HAURREN PARTE-HARTZEA IKUSPEGI FEMINISTATIK?	19
- HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA	23

SARRERA

Euskal Herrian, asko gara hezkuntzan eta parte-hartzean bide berria aukeratu dugunok, kapitalismo eta patriarkatutik at beste jendarte-eredu bat sortzeko. Asko gara hezkuntza tresna eraldatzaile bezala ulertzen dugunok eta herri hezitzaile bat eraiki nahi dugunok. Horregatik, liburuxka honetan, hezkuntzaren hautua egin dutenei gako batzuk eskaintzen saiatuko gara.

Jendarte bateratu, dinamiko, kritiko eta demokratiko bat sortzeko, oinarrizkoa da denon parte-hartzea: haur eta heldu, gizon eta emakume..., denok parte

hartu behar dugu herriaren eraikuntzan.

Horrez gain, ezin dugu ahaztu parte-hartzeak balioetan oinarrituta egon behar duela: kulturartekotasunean, naturarenganako errespetuan, aniztasunean, feminismoan, euskaran... Hezkidetzan oinarritutako hezkuntza parte-hartzaileak Euskal Herri askea eta askotarikoa eraikitzeko tresna izan behar du.

Liburuxka honetan, haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik lantzeko gako batzuk aipatuko ditugu; baina, gako horiek zeintzuk diren aipatu aurretik, beharrezkoa ikusten dugu zenbait kontzeptu argitzea: feminismoa, parte-hartzea, boterearen banaketa, demokrazia...

“Balioetan oinarritutako parte-hartzea sustatu behar dugu.”



KOKAPENA

Patriarkatua: haurrak homogeneizatzen eta zapaltzen dituen jendarte eredua

Zertan datza patriarkatua?

Patriarkatua sexu-bereizketan eta gizonen nagusitasunean oinarritutako jendarte-egitura da. Egitura horretan, pertsonen artean “emakumeak” eta “gizonak” sailkatzen dira, eta, sailkapen horrekin batera, inposatutako rol, lan, jarrera eta balio batzuk egokitzen zaizkigu. Era berean, emakumeon eta gizonen arteko desoreka bizitzako arlo guztietan gertatzen da: enpleguan, lanean, hezkuntzan...

Eremu pribatuaren eta eremu publikoaren arteko banaketa ere patriarkatuaren beste ondorioetako bat da. Eremu pribatua, hau da, etxea, familiarren zaintza..., emakumearen ardura dira, eta eremu publikoa, aldiz, enplegua, harreman sozialak..., gizonen ardura. Gaur egun emakumezkook eremu publikora salto egin arren, eremu pribatuaren lan-karga guztiarekin jarraitzen dugu, lan-karga bikoitzarekin, gainera: enplegua eta lana, eta zaintza.

Boterearen inguruan hitz egin dugu,

baina, patriarkatuaren egitura ulertzeko, gehiago sakondu behar dugu botere-egituretan. Historikoki, kapitala edo boterea hiru arlotan banatu izan da: ekonomian, kulturean eta gizartean. Ikus eta neur daitezkeen hiru eremu horietan, nabarmena da patriarkatuak sortutako desorekaren eragina. Iparraldeko herrietan genero biek teoriarik ez zuten hezkuntza sarbiderako aukera berak izan arren eta emakumezkoen prestakuntza goi mailakoa izan arren, emakumezkoek askoz langabezia-tasa altuagoak pairatzen dituzte. Hegoaldeko herrietan, aldiz, azpimarratzekoa da emakumeen analfabetismo-tasa handia.

Sailkapen horri gehitu behar zaio kapital sinbolikoa esaten zaion laugarren eremu bat. Kapital sinbolikoa eta indarkeria sinbolikoa eskutik doazen bi kontzeptu dira. Patriarkatuaren ondorioz alde ikusezin hori jendartean “normaltzat” edo “naturalizat” jotzen dugun arren, eraikuntza sozial bat baino ez da.

“Patriarkatua sexu-bereizketan eta gizonen nagusitasunean oinarritutako jendarte-egitura bat da.”

Gaur egun, berdintasun faltsuaren garaian, errazagoa egiten zaigu indarkeria fisikoa edo psikologikoa identifikatzea. Hala ere, zer gertatzen da indarkeria eta botere sinboliko hori denon artean mantentzen, sortzen eta errepikatzen dugunean?

Kapitalismoak bezala, patriarkatuak sotilki betetzen ditu bere helburuak, eta sotilki mailakatzen ditu herritarrak. Gaur egun, hedabideak, hezkuntza eta horrelako bitartekoak patriarkatuaren balioak modu arrakastatsuan zabaltzeko tresnak dira.

Emakumearen lan munduratzearekin berdintasunera iritsi garela sinetsarazi nahi izan digute, baina oraindik ere hor diraute indarkeria matxista eta botere sinbolikoa zabaltzen duten ezau-garri batzuek: edertasun-kanonak, botere-harremanek, inposatutako rol tradizionalak, harreman-ereduak lantokietan eta familietan... Zer esanik ez dago: hezkuntzan ere indarkeria hori gertatzen da. Era inkontzientean, espazioaren erabilera sexista egiten da gure eskoletako patioetan edo gure he-

rriko plazetan, adibidez, mutilak eta futbola erdigunean jarriz eta neskek beste "edozein jolasetan" bazterrean utziz. Biltzarretan, jokoetan eta abarretan, bazterketa sinboliko hori nesken parte-hartze eskasaren bitartez ikusten dugu.

Hezitzaileok, konturatu barik, patriarkatua errepikatzen dugu, gure ludoteke-tako material sexista aukeratzen dugunean, ipuin tradizional eta era berean sexistak aukeratzen ditugunean, betiko familia-eredu tradizionala errepikatzen dugunean, aurreiritzietan murgiltzen garenean edo hurrei aurpegia printzesaz eta Spidermanez margotzen diegunean.

Gaur egungo boterea ekonomikoki ahaltsuak diren gizon zurien eskuetan dago. Profil horretatik at gaudenok sistema eraldatzen saiatzen gara, inposatutako jendarte kapitalista eta patriarkalaren zirrikituak identifikatuz. Asmo eraldatzaile horrek izan behar du hezitzaileon lana, eta hori da liburuxka honetatik helarazi nahi dugun proposamena.



PATRIARKATUAREN ZIRRIKITU ETA HAUSTURETATIK HEZTEN:

FEMINISMOA ETA PARTE-HARTZEA

Parte-hartzearen eta ikuspegi feministaren gaiari heldu aurretik, jarrai dezagun hurrengo kontzeptu hauek argitzen: parte-hartzea, feminismoa, herritarra...

Lehenengo kontzeptua argituz... Zer da “herritarra” izatea?

Argitu beharreko lehenengo kontzeptua “herritarra” da. Askotan erabiltzen dugun terminoa izan arren, ez daukagu argi. Zer da “herritarra” izatea? Nor da “herritarra” Euskal Herrian? Pertsona guztiok herri eta auzoetan parte hartze-ko eskubide berak ditugu?

Gaur egun, Euskal Herrian, jendarte “demokratikoan” bizi gara, eta, herritar guztiok oinarrizko eskubideak legez aitortuta ditugun arren, maiz ez dira egikaritzen. Haurren kasuan, gainera, 18 urte bete arte ez zaizkie herritar osoei dagozkien eskubideak aitortzen. Gizakiok, ordea, jaiotzen garenetik erakusten ditugu erabakitzeko gaitasuna eta ahalmena, eta, beraz, ordutik

izan beharko genuke parte hartzeko eskubidea.

Jendarte kapitalista eta patriarkal honetan, emakumeak, gutxiengo etnikoak, lan egonkorrik ez dutenak, migratzaileak, haurrak... babesik gabe geratu ohi dira, legeak herritartasuna lortzeko bide eskasak eskaintzen dizkietelako; izan ere, boterean dauden elite politiko maskulinoek egoera horri eusten diote eta horixe elikatzen dute euren politiken bidez.

Bigarren kontzeptua argituz... Zer dira feminismoak?

Zer da feminismoa? Edo, hobe esanda, zer dira feminismoak? Feminismoa ulertzeko eta bizitzeko hamaika modu eraiki dira, bai Euskal Herrian, bai mundu osoan. Hori dela eta, zuzenagoa da feminismoez hitz egitea, feminismoaz baino.

Hala ere, korrante guztiek berdintasunari buruzko kontzientzia komuna darabilte, eta, egoera horri aurre egiteko, jarrera kritiko-aktiboa sustatzen

dute. Era berean, gaur egungo harreman sozialak kritikatzeko dituen teoria sozialen eta praktika politikoen multzoa ere bada feminismoa.

Gizartean berdintasun faltsua zabaldu da eta zaila da feminismo kontzeptuaz kolektiboki zer ulertzen dugun zehaztea. Neurri handi batean, emakumeen egoeraren kontzientzia galdu da, emakume askok eskatzen duten oro jasotzen dutelako eta zer aldarrikaturik ez dagoela pentsatzen dutelako. Hala ere, agerikoa da patriarkatuaren eragina bizitzako une txikienetan ere. Feminismoaren bidez, bazterketa horiek eraldatzeko saioa egiten da.

Patriarkatuak fisikoki eta mentalki mugatzen gaitu. Sistema horrek bata bestearen menpe dauden emakumeen eta gizonen prototipo hertsia diseinatu ditu: bata munduaren jabe, bestea esklabo. Patroi horietatik kanpo dagoena ez dago jendartean onartua. Feminismoaren helburuetako bat da inposatutako patrioi horiek desagerraraztea. Estereotipo eta roletatik at, neurri, kolore eta zapora askotako patrioiak sortu behar ditugu.

Baina feminismoa emakumeon eskubiaren aldarrikapenetik harago doa; feminismoaren bitartez, zapalduen ahalduntzea bultzatu nahi da, jendarte-

egitura berrantolatuta eta zaintza erdigu-nean jarri. Euskal Herri kapitalista eta patriarkal honetan, emakumeak, haurrak, etorkinak, txiroak, gazteak, pentsiodunak, hau da, pertsona guztiak eraldaketarako subjektu bihurtu nahi dituzte feminismoak.

Hirugarren kontzeptua argituz... Zer da parte-hartzea?

Herritarra parte hartzen duen subjektua bada, parte-hartzea zeri esaten diogun definitu behar dugu. Izan ere, Euskal Herrian azken boladan asko erabiltzen den kontzeptua izan arren, ez dago baxter argi.

Parte-hartzea eraldaketarako ekintza metodologiko eta politikoa da. **Norberaren izaeraren eraikuntzan**, ezinbesteko ezaugarria da eta era berean, herri bat eraikitzeke oinarritzeko tresna. **Ondokoaren aitorpenetik** eta berdintasunetik abiatzen den eraikuntza pertsonal eta kolektiboa da prozesu parte-hartzailea. Norabide argia izango duen prozesua da (helburuak argi ditu), baina, helmugari baino gehiago bideari berari emango dio garrantzi handiagoa. Ikaskuntza-prozesua, bertan parte hartzen duten pertsona eta kolektibo guztiak ikasketa-prozesu iraunkor batean txertatuko baitira.

Partaidetzak sortzailea, erakargarria eta eraldatzailea izan behar du; errealtatearekin bat datorrena eta inklusiboa; ulermen, eztabaida eta elkarrizketarako espazio erosoak eskainiko dituena; jen-

“Parte-hartzea eraldaketarako ekintza metodologiko eta politikoa da.”

dearen lorpenetan sinesten duena; gatazkak ikasketa-prozesu bihurtuko dituen. Jendarte trebatuagoa eta hobea lortzeko bidean, lehen pausotzat hartzen da partaidetza.

Parte-hartzeak **inklusiboa** izan behar duela aipatzen denean, adierazten ari gara, gure jendartean bazterturik dauden hainbat kolektiboren egoera ikusarazten lagundu dezakeela. Proiektu, egitasmo eta ekintzetan haurren begirada txertatzean, proiektu inklusiboak bultzatzen ari gara: denon artean eta denontzat sortuak.

Parte-hartzearen inguruan hitz egiten dugunean, **norberari eta komunitateari eragiten** dioten erabakiak adie-

razteko eta gizarteak horiek onartzeko duen gaitasunaz ari gara; beraz, komunitateko edozein kiderentzat (haurrak eta helduak), eskubiderik garrantzitsuen parte hartzeko eskubidea izango da.

Orain arte heziketaren munduan aritu garenok, askotan, haurren nahiak eta beharrak identifikatzen ahalegindu gara, haurrak kontuan hartu barik. Haurren gaitasunak alde batera utzi ditugu, beraien gaitasun emozionala, erabakitzeko ahalmena eta autonomia muga-tuz. Zentzu horretan, haurren eskubideen alde egiteak gaur egun ditugun hiri-eredua eta bizi-eredua zalantzan jartzea esan nahi du.



PARTE—HARTZEA IKUSPEGI FEMINISTATIK

Kontzeptu klabeak argitu ondoren, nola ulertzen da parte-hartzea, ikuspegi feministatik?

Ikuspegi feministatik parte-hartzea abian jartzeko, kontuan hartu behar dugu jendarte patriarkalean bizi gara. Euskal Herrian ere, duela milaka urteko kultura sexistaren ondorioz, boterearen banaketa emakumea vs. gizona ereduaren arabera antolatzen da. Jendarte kapitalista hierarkizatu honek, gainera, botere-banaketa hori indartu besterik ez du egiten.

Hori dela eta, errealitate bidegabe honi aurre egin behar diogu denon artean, proposamen parekide eta feminista sortuz. Parte-hartzea harremanak demokratizatzeko bitartekoa dela ulertzen badugu, ezin dugu parte-hartzeaz hitz egin, balioen hezkuntzaz, eta era berean, hezkidetzaz eta feminismoz hitz egin gabe. Bi kontzeptu eta praktika horiek eskutik lotuta joan behar dute,

betiere, balioen hezkuntza lantzeko biderik onena parte-hartzea dela jakinik.

Jabetzeko, harremanak orekatzeko, harreman berriak sortzeko, zirrarei tartea eskaintzeko, boterea demokratizatzeko, herritar aktiboak hezteko eta sistema patriarkalaren diskriminazioa gainditzeko guk aukeratutako bide baten emaitza izango da parte-hartzea.

Parte-hartze feministaren bidez, indarkeria sinbolikoari aurre egiten diogu.



***“Haurrak parte hartzera,
zirrarak azaleratzera,
elkarbizitza sustatzera eta
sexualitatea askatasunez
bizitzera gonbidatu behar
ditugu.”***

Indarkeria sinbolikoari (eta beste mota batzuetako indarkeriei) aurre egiteko era egokia izan daiteke, pertsona kritikoak, ahaldunduak eta parte-hartzaileak hezteko. Bide horretatik, gure haurrak kritikotasunaren betaurrekoekin hezi behar ditugu, metodologia eraldatzailearen bitartez.

Bestalde, jendarte-eredu desorekatu, inposatzaile eta baztertzailer horri aurre egiteko, ezinbestekoa da botere feminista eraikitzea. Hezitzaileok, haurrok, familiok..., gu geu izango gara subjektu eraldatzaileak, hau da, boteredunak, feministak, sortzaileak eta ameslariak. Gure esku dago herritarrak, eta kasu honetan, haurrak objektu pasibo izatetik subjektu feminista aktibo izatera

pasatzea.

Subjektu feminista parekidetasunean, kritikotasunean, justizian eta elkarkidetasunean oinarritzen den herritar gisa definitzen dugu. Hori dela eta, hezkidetzaren hautua txikitatik egin behar dugu, gure inguruko haurrak askatasunean heziak izan daitezen, patriarkatua eta kapitalismoa ez baitira existitzen gu barik.

Hezitzaileok alde batera utzi behar ditugu negatibotasunean planteatutako diskurtsoak eta helburuak... Haurrak parte hartzera, zirrarak azaleratzera, elkarbizitza sustatzera eta sexualitatea askatasunez bizitzera gonbidatu behar ditugu. Aldaketarako garaian gaude.



HELBURUAK

Zein izango dira haurren parte-hartzeak izango dituen helburuak, betiere ikuspuntu feminista kontuan hartuta?

Galdera horri erantzuteko eta aurretik egindako ariketarekin jarraituz, feminismoaren eta parte-hartzearen helburuak zehaztu behar ditugu aurrez. Horiek zehaztuta, haurren parte-hartze feministaren helburuak identifikatu beharko ditugu.

Feminismoaren helburuak:

• Jendarte-egituraren eraldaketa ahalbidetzea.

Jendarte-egitura desorekatu honen aurrean, egitura justu eta demokratikoa sortzea, zeinetan zaintza eta elkarbizitza oinarri izango diren.

• Emakumeak subjektu aktiboak bihurtzea.

Jendarte kapitalista eta patriarkal honetan, emakumeok subjektu aktibo eta kritikoa garen heinean, feminismoak Euskal Herri askea eraikitzeke oinarri-zko tresna izan behar dugu.

• Pertsona guztien arteko harremanen demokratizazioa lortzea.

Hau da, lehen aipatutako botere-des-

oreka zokoratzea eta boterea herritar guztien artean banatzea.

• Gaur egun dagoen dikotomia desagerraraztea.

Jaiotzen garenetik, dikotomia honen barruan sailkatzen gaituzte: emakume edo gizon zara, eta, horrekin batera, emakume edo gizon izatearekin lotzen diren rol, jarrera eta portaera guztiak baneratzten ditugu. Heldu da joera hori baztertzeko garaia. Ikuspegi holistikotik pertsona "osoak" hezteko garaia heldu da; askatasunean eta balio positiboetan (zirraretan, elkarlanean, errespetuan, enpatian...) oinarritutako hezkuntza-eredua ahalbidetu behar dugu.

Parte-hartzearen helburuak:

• Eraldaketarako prozesuak sortzea.

Parte-hartzea eraldaketa politikorako metodologia da, eta hori izan behar dugu helburu, esku hartzen dugunean. Metodologia honen bitartez, pertsona kritikoa heziko ditugu, jendarte hobea eraikitzeke asmoz.

• Pertsona guztien ahalduntzea ahalbidetzea.

Parte-hartzearen esparruan, helmugari baino garrantzi handiagoa emango

diogu bideari. Zergatik? Bidean, ikas-keta-prozesu itzela gertatzen delako. Ikasketa-prozesu horren bidez eta pertsona kritiko, sortzaile eta kontzientziadunak sortuz, kide guztien ahalduntzea lortuko dugu.

• **Herri, auzo zein taldeetan kideen arteko harremanak demokratizatzea.**

Parte-hartzearen bidez, elkarrekin sortuz eta erabakiz, harremanak demokratizatzea lortuko dugu. Nola? Metodologia egokiak erabiliz. Ezin dugu ahaztu parte-hartzea ez dela berez gertatzen den zerbait eta hezitzaileon esku da goela pertsona guztien hitza eta iritzia taldean islatzea. Horregatik, beste harreman-eredu batzuk lortzeko, metodologia izango da gakoa.

• **Zapalduen hitza ematea.**

Gaur egungo jendarteetan, gutxi batzuek parte hartzen dute herri eta auzoetako erabakietan. Parte-hartzearen bidez, pertsona guztien hitza eta iritzia kontuan hartuko dira erabakiak hartzeko. Parte-hartzearen helburuetako bat errealitate komun batean askotariko ikuspegiak txertatzea ere badelako. Zer esan nahi dugu honekin? Ludotekak, udalekuak, eskolak edo parkeak modu askotara ikus daitezke, ez baita gauza bera haur baten begietatik begiratzea ala heldu baten begietatik begiratzea. Ez da gauza bera ama baten begietatik begiratzea, edo aitona baten begietatik begiratzea. Denok modu desberdinean ikusten ditugu espazioak, eta denok

ematen diegu erabilera desberdina; gakoa, beraz, parte-hartzearen bidez espazio horiek denontzat esanguratsuak eta gustukoak izatea da.



HAURREN PARTE—HARTZEA IKUSPEGI FEMINISTATIK

Kontzeptuak eta gai nagusia argitu ditugunez, haurren ikuspegiari ekingo diogu, hau da, liburuxka honen gai nagusiari: haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik.

Orain arte ikusi dugunez, feminismoak eta parte-hartzeak helburua komunak dituzte. Horien artean: jendarte-egituraren eraldaketa ahalbidetzea, pertsona guztien ahalduntzea ahalbidetzea eta zapalduen hitza ematea. Azken helburu horretan dago gakoa.

Zapalduen hitz egiten dugunean, boterea ez dutenez ari gara, arrazoi batengatik ala besteagatik jendartearen baztertuta daudenez, herri eta auzoetan erabakitzeke eskubidea ez dutenez. Zapalketa hori hamaika arrazoitan oinarritzen da: dirua, generoa, jatorria, adina... Haurrak ere kolektibo zapalduen artean identifikatzen ditugu, adinaren ikuspuntutik.

Haurtzarora beti identifikatu izan dugu aldi bateko prozesu batekin, helmuga

heldua izatea balitz bezala. Horregatik, historian ez zaio behar eta merezi duen balioa eta garrantzia eman haurtzarolari. Gaitasun gutxi izango balituzte bezala tratatu izan ditugu haurrak. Baina sortzaileak, ausartak, azkarrak, zuhurrak eta imajinazio handikoak dira; eta, garrantzitsuena: haurrek badakite zer gustatzen zaien eta zer nahi duten. Azken finean, argi eduki behar dugu haurrek erabakitzeke ahalmena eta erabakitzeke eskubidea ere badutela. Horren ondorioz, subjektu aktibo eta eraldatzaile dira.

Pertsonok **esperientziaren bidez** ikasten dugu; erabakiak hartzen ditugunean, behatzen dugunean, laguntzen dugunean, elkarrekin aritzen garenean, sentitzen dugunean...etengabe ikasten dugu. Horretarako, oinarrizkoa da haurren parte-hartzea eta autonomia garatzeko esparruak eta espazioak eraikitzea, hezitzaileok bizipenetatik eta zirraretatik abiatutako parte-hartzea susta dezagun.

Ezin dugu ahaztu, parte-hartzerik egon ezean, ezin dela balioen hezkuntzaz hitz egin. Bi kontzeptu eta praktika horiek eskutik lotuta joan behar dute, parte-hartzea baita balioen hezkuntza lantzeko biderik onena. Beraz, esan

“Haurtzarora beti identifikatu izan dugu aldi bateko prozesu batekin, helmuga heldua izatea balitz bezala.”

dezakegu **ezin dugula parte-hartzeaz hitz egin feminismoa ardatz duen heziketa batez hitz egin gabe**; hau da, ezin dugu parte-hartzeaz hitz egin, hezikidetzaz hitz egin gabe.

Bestalde, ezinbestekoa da **zeharkakotasuna**. Haurren erabakiak errespetatzen baditugu, beraiek erabakiko dituzte ohiko jarduerak. Horregatik, hezitzaileok behaketa egin ostean, une informal egokiak bilatu behar ditugu, berorietan hezikidetzarekin lotutako heburuak zehazteko eta txertatzeko.

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu pertsona oro, haurra zein heldu, **balioen transmisore** dela. Edonoiz, besteekin ha-

rremanetan gaudenean, balioak transmititzen ditugu, eta haurrek ere, modu inkontzientean, gauza bera egiten dute: jolastokian lagunen artean, nebarreba elkarri laguntzen ari direnean... Haurrak ere hezitzaileak dira, eta beraiei jakinarazi behar diegu. Batzuetan, ezinbestekoa izaten da aitortpena esplizituki adieraztea, haurrak beraien gaitasunaz eta ahalduntze-prozesuaz ohar daitezen eta, era berean, autoestimua landu dezaten.

“Pertsona oro, haurra zein heldu, balioen transmisore da.”



NOLA SUSTATU HAURREN PARTE-HARTZEA IKUSPEGI FEMINISTATIK?

Estrategiak:

• **Zapalduer hitza ematea:** hurren parte-hartzea sustatzen dugunean, zapalduer hitza ematen ari gara. Garrantzitsua da botererik ez dutenak ahalduentzea, eta, horretarako, oinarrikoa da parte hartzeko espazio berriak eraikitzea.

Parte hartzeko aukera gutxien dituztenei hitza eta protagonismoa eskaini behar dizkiegu hezitzaileok (inoiz inposatu gabe) udalekuetan, biltzarretan, dinamizazioetan... Horretarako, ezinbestekoak dira dinamika parte-hartzaileak eta talde-dinamikak. Bide horretan, boterea demokratizatuko dugu, eta taldekohezia landuko dugu. Aldi berean, norberaren autoestimua eta autokontzeptua ere landuko ditugu.

• **Harreman osasuntsuak:** gaur egun, **lehiakortasunean** murgilduta dago jendartea, eta harreman lehiakorrek sustatzen ditu horrek, indibidualismoa ahaztu barik. Horri aurre egiteko, ezinbestekoa da hurrekin eta gazteekin enpatiaz eta asertibitatez jokatzeko. Bi balio horiek dira zaintza eta harre-

man osasuntsuen oinarriak. Zergatik? Kapaz bagara gure sentimenduak eta zirrarak mindu barik esateko eta, aldi berean, kapaz bagara besteak nola sentitzen diren ulertzeko, harreman osasuntsu eta lasaiagoak izango ditugu.

• **Ahalduntze kolektiboa:** pertsonok izaki sozialak gara, eta, jaiotzen garenetik, lagunez eta maite gaituztenez inguratuta gaude; hau da, hasiera-hasieratik, talde bateko kideak gara. Taldeak ahalduentzeko espazioa izan behar du. Norberaren ahalduentzetik taldea ahalduentzen dugu, eta, aldi berean, talde ahaldun eta elkartu bateko kide izanda, gu ahalduentzen gara. NI-tik GU-ra pasatu behar dugu, kolektibitatean heziz, haziz eta pentsatuz, hori baita parte-hartzearen beste oinarrietako bat.

• **Subjektu aktiboak:** pertsonak aktiboak gara, eta ingurua etengabe eraldatzen dugu; baina, behin baino gehiagotan aipatu dugunez, mugatuta gaude, subjektu pasibo bagina bezala tratatzen gaituztelako. Horren adibiderik argiena hurrekin harremanak ezar-

tzeko moduan dago.

Haurrek euren ingurua eraldatzeko gaitasuna duten bezalaxe, beraien egunerokoan parte har dezakete eta erabakiak ere har ditzakete. Horretarako, aukerak eman behar zaizkie. Betiere, bidea oinarri feministatik eginez.

Aholku sorta:

Haurren parte-hartzean, **argudioetatik eraikitzen** den metodologia sustatu behar dugu. Horretarako, estrategia eta bide berriak sortu behar ditugu. Helburu hori gauzatzeko, bost bide nagusi proposatzen ditugu: behaketa, biltzarra, hizkuntza ez-sexista, zirrarak lantzea eta autoestimua lantzea.

Hezitzaileak egin behar duen lehendabiziko lana behaketa izango da: balioak txertatzeko, botere-harremanak desagerrarazteko, haur guztien parte-hartzea bermatzeko...

Bigarren pausoa biltzarrak izango dira. Biltzar horiek erabakitzeke guneak izateaz gain, hausnarketa kritikoa eta autonomia sustatzeko guneak izango dira.

Ezin dugu ahaztu **erabakiak ariketa kolektibo baten** barruan hartu behar ditugula. Hezitzaileok gidariak eta laguntzaileak besterik ez gara izango.

• **Behaketa:** heziketa parte-hartzailean, hezitzaileok gidari-funtzioa izan behar dugu, strategiak bilatu behar ditugu eta, behaketa egin ostean, **une proposak** identifikatu beharko ditugu. Une horiek helburuak zehazteko eta balioak

txertatzeko erabiliko ditugu.

Bestalde, behaketaren bidez, haurren rolen inguruko irakurketa egin dezakegu, irakurketa egin ondoren esku hartzeko eta haurren **botere-harremanak orekatzeko**. Xede horren bidez, lidergoak orekatuko ditugu, eta hitza berdintasunez banatuko dugu. Horrela, haur guztien autoestimua eta autonomia landuko ditugu.

• **Biltzarra:** biltzarraren bidez haurrei adierazteko esparru bat eskainiko diegu eta hainbat ezagutza eta gaitasun barneratuko dituzte. Eztabaidatzeko espazio aske horretan, haur guztiek **eroso sentitu** behar dute. Biltzarrek ahalduntze-prozesu izan behar dute denontzat. Zentzu horretan, hezikuntzaren helburu nagusietakoa **haur eta pertsona kritikoak sortzea izango da**.

Haurrak heziketa-prozesuko kide aktibo eta **protagonista bihurtzen** ditugun heinean, ekintzen berri eman beharko diegu, ez soilik zer egingo dugun edo zer ez adierazteko, baita haurrek udalekuetako ekintzak eta helburuak erabakitzeke ere. Horregatik, udalekuen edo edozein ekintzaren hasieran ume talde berri bat elkartzen denean, kome-nigarria da biltzarra egitea eta aipatutako kontuez aritzea.

“Haurren parte-hartzean, argudioetatik eraikitzen den metodologia sustatu behar dugu.”

• **Hizkuntza ez-sexista:** hizkuntzaren erabilera inkontzienteki bazterketarako darabilgun bidea da. Hitz egiteko formak, esaerak, genero maskulinoak eta horrelako ezaugarriek emakumeok bigarren maila batera zokoratzen gaituzte, edota desagerrarazi egiten gaituzte. Horri aurre egiteko, garrantzitsua da **hizkuntza barneratzailea** erabiltzea, denontzat esanguratsua den hizkuntza, errespetuan eta ondokoaren aitopenean oinarritzen dena, alegia.

• **Zirrarak lantzea:** zirrarak alde batera uzten ditugun zerbait dira normalean. Bizitza-eredu makal honetan, badirudi errazena sentipenak eta zirrarak alde batean uztea dela. Zaila egiten zaigu sentitzen duguna identifikatzea eta adieraztea. Haurrek zirraretatik bideratzen dute beraien praktika, eta, horregatik, garrantzitsua da sentipenen inguruko hausnarketak hurrekin batera ahalbidetzea.

Haserreaz, pozaz, tristuraz, beldurrak edo harriduraz gain, hamaika zirrarak dibertigarri eta hunkigarri bizi eta senti ditzakegu: jeloskortasuna, hunkipena, amorrua, atsegintasuna, urduritasuna... Bizitzan zehar, horiek eta beste batzuk sentituko ditugu, eta, horregatik, ezinbestekoa da zirrarak kudeatzen jakitea eta horien inguruan hitz egitea.

• **Autoestimua:** Ezinbestekoa da norberak bere burua zaintzea eta gustura egotea. Gainera, parte-hartzeaz hitz egiten dugunean, norbanakoak, pertsona indibidualak dira taldea sortzeko abiapuntuak. Bosgarren pausoa autoestimua lantzea izango da. Horretarako, gure burua maitatu behar dugu, taldean seguru egoteko eta lasai eta maitatua sentitzeko; era berean, taldeko kideak beren buruarekin gustura badaude, talde-kohesioa handiagoa izango da, eta, horrekin batera, parte hartzeko espazio lasaiagoa sortuko dugu.



HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Haurren parte-hartzea bultzatuko duten egitasmoetan, ezinbestekoa da hezitzaileok proiektu eta metodologia horietan sinistea eta, era berean, hezitzailearen rola aldatzea. Hezitzailearen eginkizunean, oinarrikoa izango da metodologia, eta, horretarako, haurren eginkizunen programatzaile izatetik **haurren bidelagun, laguntzaile eta behatzaile izatera pasatu beharko du.**

Hezitzailearen betekizuna funtsezkoa da, eta, beraz, lehenengo pausoa hezitzaileok orain arte erabilitako **lan-moldeak deseraikitzea** izango da, gero **trebakuntzaren bidez berreraikitzeko**. Metodologia berri horrek gaurdaino erabilitako lan-moldeak goitik behera aldatzea dakar.

Baita ere orain arteko rol eta botereen haustura dakar. **Horizontalki eraikitako hezkuntza-eredua** denez, beharrezkoa da hezitzaileen taldean botere-harremanen inguruko hausnarketa egitea.

Bestalde, ebaluazioak beti izan dira garrantzitsuak hezkuntza-prozesuetan, baina, aipatutako beste eremuetan bezala, honetan ere berraztertu egin behar da. Pertsona kritikoak hezi nahi di-

tugun heinean, ebaluazioek abiapuntua izan behar dute **hausnarketa kritiko** kolektiboa garatzeko, **autoebaluazioa** bultzatzeko eta botere-harremanen inguruko hausnarketa egiteko.

Ander Egg-en oinarri teorikoei jarraikiz, sei funtzio nagusi aipatuko ditugu:

• Partaideen arteko arauak adostea:

Arauek kideen arteko partaidetza modu parekidean gauzatzea izango dute helburu (txandakatuz, errespetuz hitz eginez...). Dinamizatzaileak horiek betetzen direla ziurtatu behar du.

• Komunikazioa modu egokian garatzeko bideak eraikitzea:

Ahozko komunikazioa zaintzeaz gain, ezin dugu ahaztu hitzik gabeko komunikazioa ere garatzen dela. Horregatik, garrantzitsua da giro lasai eta enpatikoa sortzea.

• Gidaria:

Dinamizatzaileak taldea gidatu be-

“Hezitzaileak haurren bidelagun, laguntzaile eta behatzaile izatera pasatu behar du.”

harko du, eta taldearen eta prozesuaren garapenari lagundu.

• Ekarpenen zerrenda:

Lagungarri izango da partaideek prozesuan egiten dituzten ekarpenak zerrendatzea. Era horretara, partaideen ideia guztiak bilduko dira, inor kanpoan utzi gabe. Hori aurrera eramateko, beharrezkoa da aurretiaz zein metodologia erabiliko den planifikatzea (arbela, grabazioak ...).

• Ezustekoei erantzutea:

Nahiz eta prozesu osoa modu egokian planifikatu, hortik kanpo sortuko diren gertakarien aurrean erantzun bat ematen jakingo du dinamizatzaileak.

• Gatazken kudeaketa:

Dinamizatzailea gatazkak konpontzen ahaleginduko da, bere rolaz ahaztu gabe.

Talde handiek askotan pertsonen par-

te-hartzea mugatzen dute. Hori dela eta, kontuan hartu behar dugu pertsonok askotariko ezaugarriak ditugula eta denok ez gaudela eroso talde handietan parte hartzerakoan. Bestalde, **parte-hartzea talde handian hitz egitea baino askoz ere gehiago da**, gure iritzia era askotara plazaratu baikenezake. Haurren parte-hartze orekatua sustatzeko asmoz eta gustura egon daitezten, egokia izan daiteke lehenik eta behin barne-hausnarketa sustatzea eta, horren ondoren, talde txikietan lan egitea. Gai berriak planteatzen ditugunean, ezinbestekoa izaten da bakarkako hausnarketa egiteko tarteak uztea, iritzia garatzeko edo argudioak segurtasunez defendatzeko.

Haurren arteko **botere-harremanak orekatu** nahian, hezitzaileok hainbat metodologia erabiliko ditugu. Haur batzuen iritzia laburtuko dugu, eta beste batzuei, aldiz, iritzia zuzenean eska-



tuko diegu. Era berean, erabakiak hartzeko unean, eragina izan dezakete botere-harreman edo lidergo horiek. Horregatik, komenigarria izan daiteke erabakiak hartzeko dinamikak abian jartzea (txartelen bidez iritzia ematea, begiak estalita bozkatzea...).

Lehen esan dugunez, balioetan oinarritutako parte-hartzea sustatu nahi dugu. Hortaz, euskaraz eta soilik euskaraz egingo ditugu biltzarrak eta dinamika guztiak. Haurren batek euskara ondo ez dakienean, hezitzailearen edo beste haur baten ondoan eseriko da, eta itzultzaile-lana egingo diote. Ahal duen neurrian, erdaraz edo euskaraz parte hartuko du hark. **Hizkuntza ez da traba izango parte hartzeko, inklusiorako zubia baizik.**

Garrantzitsua da biltzarren dinamikak ez moztea. Hori dela eta, biltzar batean haur berri bat sartzen denean, ez dugu biltzarra etengo; hezitzailearen ondoan eseriko da, eta hark azalduko dio zeri buruz ari diren. Era berean, biltzarretan haurren **esku-hartzeei naturaltasuna** ez kentzen ahalegindu behar dugu.

Amaitzeko beharrezkoa da azpimarratzea parte-hartzeak, hezkuntza ez-formalak eta **biltzarrek zerbait erakargarria** izan behar dutela haurrentzat. Horregatik, lantzen ditugun gaiek umeentzako esanguratsuak, hurbilak eta erakargarriak izango dira

“Hizkuntza ez da traba izango parte hartzeko, inklusiorako zubia baizik.”



HAURREN AISIALDI PARTE—HARTZAILEA, EUSKALDUNA, HEZITZAILEA ETA HERRITARRA GARATZEN

Koaderno bilduma:



Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen



Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik



Nola egin udaleku parte-hartzailea



Nola egin ludoteka parte-hartzailea



Parkeak bizitzeko modu berriak